

8. Euskara Batu Zaharra eta dialektoen sorrera

1. Dialektologia historikoa 1981 arte.— 2. Mitxelena eta Euskara Batu Zaharra.— 3. Dialektalizazioa aztertze oinarriak.

BIBL → Lakarra 2013b.

1. Dialektologia historikoa 1981 arte

1.1. Dialektoen sailkapena eta haien historia

1.1.1. *Sailkapen sinkronikoa(k)*

Lehen sailkapen dialektal modernoa Bonapartek egina da. Hainbat zalantza gainditu ondoren —zazpitan (BN bakarrarekin) edo bederatzitan (bi B-rekin) egitekotan ere egon zen— (cf. Yrizar 1981), azkenik zortzi euskalkitan banatu zuen euskara euskalkien mapa egiteko baliatu zuen 1869ko sailkapenean:

1. bizkaiera (B)
2. gipuzkera (G)
3. iparraldeko goi-nafarrera (IGN)
4. hegoaldeko goi-nafarrera (HGN)
5. lapurtera (L)
6. mendebaldeko behe-nafarrera (MBN)
7. ekialdeko behe-nafarrera (EBN)
8. zuberera (Z)

Ondoko euskalari guztiak oro har¹ Bonaparteren sailkapen honi atxiki zitzaizkion. Gerora eragin gehien izango zuten zehaztapenak, diakroniaren esparruan bederen, Azkuerenak eta Mitxelenarenak izan ziren. Azkuek hiztegia (1905-1906) eta bestetan erabili zuen sailkapenean erronkaria (E) —Bonapartek zubereraren barnean kokatua— dialekto beregaintzat hartu zuen, eta GN biak eta BN biak euskalki banatan bildu.

Mitxelenak ere gehienbat Bonaparteren sailkapenari heldu zion, “muy cómoda, además de razonable” baita haren ustez (1964: 15), nahiz erronkaria ez ezik aezkera (Ae) eta zaraitzua (Zar) ere bereizi, Bonapartek zein bere iparraldeko euskalkian —MBN eta EBN, hurrenez hurren— kokatu bazituen ere. Dena dela, guri dagokigunez euskal dialektologiari egin zion ekarpen handiena, alde handiz, Arabako euskalkia azaleratzea izan zen (Mitxelena 1958). Arabako euskara egon bazegoen, noski, nahiz XVIII. mendeaz geroz zeharo txikitua, baina ia inork ez zion erreparatu —Larramendiren eta besteren oharrak gorabehera (cf. Camino 2009: 487-488)—, Mitxelenak Landucciren hiztegia (1562) aztertu eta artean ezezaguna zen mintzo baten lekukotasuna zela —berak “meridional”, hots, “hegoaldekoa” deitua— eta mintzo hori Arabako euskara zela —agian Gasteizkoa— frogatu arte. Izan ere, Bonapartek Arabako euskararen hondarrak bizkaieraren barruan sailkatu zituen, ezinbestean ia:

El *Vocabularium linguae Cantabrigiae* (1562) de N. Landucci (...) representa una variedad vasca no conocida por otros testimonios y que *no está ni podía estar comprendida en la clasificación de Bonaparte*, lo que significa que tuvo que hablarse fuera de los límites meridionales extremos del

¹ Xehetasunetarako, ik. Yrizar (1981: 123-124) eta Camino (2009: 501-516).

euskera hace unos 120 años [hots, Bonaparte lanean aritu zen garaiko —1862 aldeko— mugetatik kanpo]” (Mitxelena 1982: 406; etzana nirea).

Bonaparteren sailkapenaren erabilera nasai hori —aldizkako kritikengatik ere— gaur arte luzatu da euskalaritzaren esparru askotan, baina, ezaguna denez, azkenotan Zuazok (1998a, 2003, 2008, 2014) proposamen berria atera du plazara, zalantza eta doitze batzuen ondoren² azkenik euskara sei euskalkitan sailkatzen duena: gaurko bostak (mendebaldekoa, erdialdekoa, nafarra, nafar-lapurtera eta ekialdekoa) eta Arabako euskara galdua.

1.1.2. *Sailkapen diakronikoak*

Bonaparteren sailkapena agerriki sinkronikoa da: maparen izenean bertan “la délimitation actuelle” marraztu duela dio, hots, “gaurko mugak”. Dena dela, zortzi euskalki horiek hiru talde nagusitan bildu zituen (Yrizar 1981: 119-120):

A taldea = B
B taldea = G, IGN, L, HGN
C taldea = Z, EBN, MBN

Diakronikoki ulerturik, honen arabera euskarak hiru adar nagusi ditu, eta gero horietako batzuk —ez hainbeste A taldea— gehiago zatikatu dira.

Nola edo hala Bonaparteren “A taldean” oinarriturik, bizkaieraren berezitasuna gero eta azpimarratuago agertuko da (cf. Yrizar 1981: 124-125 eta Lakarra 1986: 639-641). Hala, Duvoisin euskal itzultzaile eta euskalariak (1860) ez zuen uste euskalkien arteko ezberdintasunak ezer asko zirenik, bizkaierarekikoa izan ezik:

Bizkaiera bakarrik urruntzen da gainerako euskalkietatik era berezi batean, hain non sinets baitaiteke besteez ez dituzten ezaugarri on eta txarrak aurki daitezkeela bertan (Duvoisin 1860, Bonaparteri gutuna, ap. Daranatz 1928: 62; nik itzulia).

Campión eta Broussainek euskararen batasunaz idatzi zuten txosten ospetsuan bizkaiera honela definitu zuten: “el más homogéneo, compacto y denso de todos [los dialectos], que sobre todos descuella por su masa imponente. Sus tres variedades son tan poco abultadas que apenas frisan el calificativo de subdialectos” (Campión & Broussain 1922 [1920]: 5); hau da, beren ustez euskalkietan homogéneo eta trinkoena da, ia barneko zatikatze esanguratsurik gabekoa.

In crescendo honetan, Lacomberen (1924) ustetan Bonaparteren hiru taldeen ordean agian aski litzateke bi talde egitea:

Baliteke aski izatea bi dialekto talde nagusi bereiztea: bizkaiera (“mendebaldeko euskara” ere dei litekeena) batetik, eta bestetik gainerako dialektoak (gipuzkera, Nafarroa Garaiko eta Behereko dialektoak, lapurtera, zuberera) (...). Talde honi “erdialdeko-ekialdekoa” dei dakiok, bestetik bereiztearren. Honetan oinarrituko litzateke sailkapen hau: talde honetan hizkera batetik bestera ia oharkabean igarotzen da, baina gipuzkeratik bizkaierara bat-bateko jauzi bat dago. Izan ere, azken dialekto hau ezberdina da aditzaren alor oso batean, berezko aditz laguntzaileak baititu, gramatikako xehetasunetan gainerako dialektoek baino bere-bereak diren bereizgarri gehiago ditu, eta azkenik lexikoa ere sarri askotan haren kideenaz bestelakoa da (Lacombe 1924: 260; nik itzulia).

Uhlenbeck-ek (1947), are urrunago joanik, ezberdintasun hori historiara eraman zuen esplizituki lehenengoz, bi “dialekto” zahar proposatuaz eta gaurko mapa dialekto bi horien pixkanakako bateratzearen ondorioz azalduaz:

Bizkaierak gainerako euskalkiekin konparatuta dituen bereizgarriei begiratzen badiegu, pentsa dezakegu mendebaldeko Pirinioetako bi dialekto zaharretatik abiatu behar garela; denbora batez auzoak ez baziren ere, beranduago elkar ukitzera heldu eta gero bakoitzean hurbilago paratu dira. Horietako batetik sortua litzateke bizkaiera; bestetik Espainiako eta Frantziako lurraldean diren gainerako dialekto guztiak. Bizkaieraren eta gipuzkeraren arteko hurbilketa, bestela esanik

² Lehendabiziko sailkapenean “ekialdeko nafarrera” ere bereizi zuen (cf. Camino 2009: 524).

behinola argi-argiak ziren mugen ahultzea, luzaroan aritu izan den —eta oraindik ere ari den— prozesu bat da (Uhlenbeck 1947: 544; nik itzulia).

1.1.3. *Euskalkiak beren artean, bateratzen ari, ala banatzen?*

Gaur ere irakurtzea merezi duen *Sobre el pasado de la lengua vasca*-n (1964; ik. 35-38 batez ere) eta bestetan (1960, adibidez), Mitxelenak Lacombe eta Uhlenbeck-en ustea gezurtatu zuen:

Ordutik aurrera bateratzen joan dira, ala bereizten eta banatzen? Erantzunak ez du zalantzarik testu zaharrak eta gaurko bizkaiera ezagutzen dituenarentzat: bizkaiera zaharra gipuzkeratik eta gainerako euskalkietatik gertuago zegoen gaurkoa baino (Mitxelena 1964: 37-38; nik itzulia).

Funtsean, lau argudio mota erabili zituen: (1) hiztunaren hautematea, (2) euskalki guztiek partekatzen dituzten funtsezko ezaugarriak, (3) bizkaieraren eta gipuzkeraren arteko aldea denborarekin handitu izana, eta (4) Arabako euskararen lekukotasuna. Ikus ditzagun bakoitza bere aldetik polikiago.

Bizkaiera euskalkirik bereziena den ez den eta horretaz egindako baieztapenak subjektiboak dira. Berez, erdialdeko euskaldun batentzat, demagun gipuzkoar batentzat, lehen unean behintzat, zer da urrunago edo zailago, bizkaiera ala zuberera? Honela zioen Mitxelenak:

Sin negar la parte de verdad que evidentemente encierran estos argumentos [Lacomberenak], cabe replicar que, por lo que hace al vocabulario, no sería difícil espigar un grueso manojo de voces orientales que hoy serían total y absolutamente ininteligibles en un área como la guipuzcoana, lo cual no significa que siempre lo hayan sido: *askazi* ‘pariente’, *bedatse* ‘primavera’, *belha-* / *beragile* ‘bruja’, *ekuru* ‘tranquilo, quieto’, *eho* ‘matar’, *jaugin* ‘venir’ (y *jin* ‘id.’), *karroi* ‘hielo’, *oil*, *ohilt* ‘echar, espantar’, *ühülgü* ‘rayo’, *zi* ‘bellota’, etc. Habría que demostrar cuantitativamente que el número de voces exclusivas del vizc. es mayor que el de otros dialectos, y esto no se ha hecho nunca y es incluso difícil que alguna vez pueda hacerse de una manera satisfactoria (Mitxelena 1964: 35).

Hizkuntzalari historiko batentzat, aldiz, nabarmena da funtsezko berdintasunak erraz eta erruz aurkitzen direla euskalki guztietan. Beranduxeago aztertuko ditugu Mitxelenak seinlatu zituenak (ik. § xxxx). Oraingoz geldi gaitezen Mogelek (*Nom*, 1801) gaingiroki aipatu zituenekin, bera izan baitzen honetaz ohartu zen lehen euskalaria:

[El autor] pretende con la siguiente Nomenclatura hacerles palpar a los vizcaynos que dicha obra y qualesquiera otras del dialecto guipuzcoano las pueden entender con poco trabaxo (...). Los verbos auxiliares de ambos dialectos son en suma los mismos; el mismo el sintaxis [sic]; una misma la declinación articular de los nombres, excepto en el ablativo de la preposición castellana *con*, que se diferencian por *quin* guipuzcoano, *gaz* y *caz* vizcaynos, cuya diferencia la saven todos los bascongados. Muchísimos y la mucha mayor parte de los vocablos de ambos dialectos tienen la misma significación. La variedad que se nota en otros, es de sola una u otra letra, *eman*, *emon*, *dot*, *det*, *nas*, *naiz*, *ipiñi*, *ifini* o *imini*, *idoró* o *ediró*, *arquitu* o *aurquitu*, *gabe*, *bague* o *baga*, *gati* o *gatic*; *billatzen*, *arquitzen*, *lantzantzen* o *billatuten*, *aurquituten*, *lantzanduten*. Estas y otras simples variaciones no causan embarazo para la mutua inteligencia (ap. Villasante 1964: 63).

“Testu zaharrez zertxobait dakienarentzat” —Mitxelenak zioenez— nabarmen baino nabarmenagoa da B-ren eta G-ren arteko aldea denborarekin handituz baino ez dela joan. Bi adibide baino ez.³ Gaurko bizkaiera (edo bizkaiera batua, hobeto esanda) gainerako euskalkietatik bereizten da *dauz* vs. *ditu* erkatzen baditugu, baina erabateko banaketa hau atzo goizekoa baino ez da:⁴ izan ere, *ditu* edo *dituz* pleonastikoa besterik ez dago, *dauz* analogikoa Zabalaren *Verbo regular bascongado*-n lehenengoz agertu arte (1848an argitaratua).⁵ Halaber, gaurko bizkaiera gainerako euskalkietatik bereizten da *egin* laguntzailea baitarabil, gainerakoek **ezan*-en orde.

³ Xehetasun gehiagotarako, ikus Lakarra (1986).

⁴ Eta ez da egiazkoa: zenbat ez ote dira oraindik ere *ditu(z)* edo aldaeraren bat (*ditu-*, *ditxu-*) erabiltzen dutenak? Ikusi *Ahotsak* corpuseko emaitzak: <<http://www.ahotsak.eus/corpus/lema/ditu>>

⁵ *EKC*-en arabera, Uriartek erabili zuen lehenengoz, Otxandioko dotrinan (1857-1866).

Haatik, **ezan* dago bizkaieraz XVI eta XVII. mendeetan (*Arrasateko erreketak*, RS, etab.) eta, aldi berean, *egin* dago gipuzkeraz lehen testuetatik.

Arazoa da, literatur hizkuntzaren kariaz eta, Mitxelenak “hiperbizkaiera” deitu zuen eredu sortu zela XIX. mendearen amaieran:

Desde hace años, acaso desde finales del siglo pasado, ha hecho estragos el deliberado empeño de confundir el vizcaíno con lo que yo he llamado —no sin acierto conceptual, y que se me perdona la petulancia— hipervizcaíno, formado con sólo aplicar la regla que sigue: algo es vizcaíno de lengua si y solamente si sólo aparece ahí y falta en las demás variedades de la lengua (de la cual se sigue suponiendo, sin embargo, que es dialecto el vizcaíno); si no se alcanza esa perfección extrema, siempre deseable, algo es vizcaíno en la medida en que tiene menos copartícipes o, en otras palabras, en la medida en que no es vasco común (Mitxelena 1981: 527).

Hiperbizkaieraren eraginez, bada, bizkaiera “jatortzat” ematen dira *gintzazan*, *dauz*, *ebazan*, *eitean*, eta abar, nahiz eta bizkaierazko testuetan zaharrago eta ugariago izan beste euskalkietatik hurrago diren *ginean*, *ditu(z)*, *zituzan* eta *zidin* bezalakoak, eta nahiz eta herri euskararen ere hedatuagoak izan.

Horren paretsuan legoke Lakarrak (1986: 670-673) “erdi-gipuzkera” deitua: benetako gipuzkeratik —giputzen aho eta idatzietan jasotzen denetik— aldendu eta bizkaierarekin batera dituen hainbat ezaugarri ezabatu ondoren historikoki dagozkionetatik bakar batzuekin utzi nahi izan dena: esate baterako, *egin* laguntzailea eta *deu/zeban* alde batera utzita gipuzkera jator eta bakartzat soilik **ezan* eta *du/zuen* ematen dituen. Horrelatsu eratu da, hein batean bederen, literatur gipuzkera, baina literatur hizkuntzari zilegi zaiona ez da zilegi, esan gabe doa, euskalariarentzat. Adibidez, honela iruzkintzen du Ondarrak Zegamako dotrina (1741):

Bertan erabiltzen den euskarari buruz esan behar dugu bizkaieratik gauza asko dituela: “*dulzurea*”, “*vencidu*”, “*erorten*”; *deguigula* ‘diezagula’, *deub* ‘du’, *zeban* ‘zuen’, etab.; *domeka*, etab. (Ondarra 1984: 13).

Nongo ezaugarriak dira $a + a > ea$ (*dulzurea*) eta *degigula*? Ez bizkaierarenak, ez gipuzkerarenak, bistan denez, baizik eta mendebaldeko eremu zabal batekoak. Hedadura hau historikoki nola ulertu behar den, hori aurrerago ikusiko dugu. Oraingoz aski bedi argi izatea, laburbilduta, hauxe: arrazoi ezberdinengatik, funtsean bizkaieraren eta gipuzkeraren arteko ezberdintasunak handizkatu dira, eta berdintasunak zein antzekotasunak euskalki bakoitzaren “eredu kanonikotik” ezabatu, testuek —eta are gaurko hitzunez eurek ere— dioskutenari entzungor eginik.

Azkenik, isoglosa batzuen arabera hain gotor ematen duen bizkaieraren eta gipuzkeraren arteko muga beste era batera ulertzeko arrazoiak aurkitu zituen Mitxelenak Arabako euskararen. Izan ere, euskalki “berri” honek, berezko tasunez gainera, hainbat ezaugarri partekatzen zituen B, G eta are GN-rekin ere. Hau ahaztu izanaren okerra salatu bai, baina aurrerago ez zen joan, ordea, Mitxelena:

En casi todas las exposiciones que se han hecho en los últimos 100 o 200 años sobre límites dialectales vascos se ha hecho caso omiso, al igual que en lo que precede, salvo alguna mención nominal, de la mayor parte del territorio alavés: las excepciones están constituidas por Aramayona, Villarreal más Urbina, etc., Cigoitia, Barambio, Llodio, puntos o zonas siempre marginales en la proximidad de Vizcaya. (...) En todo caso, (...) no parece que se diera al sur el mismo salto brusco que estimamos se da al norte entre guipuzcoano y vizcaíno. Además, y sobre todo, la lengua que refleja el léxico de Landucci era algo que, aunque participara de rasgos occidentales, no podía confundirse en manera alguna con el dialecto vizcaíno. No se puede, pues, descuidar el testimonio de este vasco meridional (alavés, riojano, burgalés) cuyos testimonios, aunque escasos, abarcan casi un milenio (Mitxelena 1981: 526).

1.1.4. *Euskalkiak, noizkoak?*

Euskara beti bat izan delako ideiarekin (ik. 2. gaia, § 3.2.1) bat dator euskalkiak ere beti bat izan direlako ustea, hala lurralde hedaturari nola bakoitzaren bereizgarriei dagokienez, euskalari askoren esan zuzen edo zeharkakoan azpian antzeman daitekeen bezala. Alabaina, noizkoak direla uste izan dute euskalariak egiazki?

Larramendik oso aspaldikotzat jo bide zituen euskalkiak, ziurrenik Babel ondoko euskararen hedaturaren ondorioztat: Penintsulan hitz egiten zen hizkuntza bakarra omen zen antzina hartan, normala baino ez zen, haren ustez, euskara hedatuago eta euskalkiak orain direnak baino are gehiago ere izatea (1745: xxvii eta clvi-clxi).

Hala ere, lehentxeago oinarritu ohi da, Oihenarten *Notitia* liburuan (1656) hain zuzen, atxikimendu gehien izan duen hipotesia, alegia, euskalkiak antzinako leinuekin lotura dutelakoa. Edonola ere, badirudi batez ere Caro Barojari (1943, 1945) zor zaiola hipotesi honek izan duen eta oraindik ere duen entzutea. Hauek dira hipotesiaren oinarri nagusiak (Caro Baroja 1945: 34):

1. Baskoien iparraldeko muga bat dator IGN-ren Gipuzkoako aldakiarekin, eta ez Nafarroaren mugarekin.
2. HGN-aren 1552ko muga bat dator baskoien lurraldearen hegomenbaldeko mugarekin.
3. Karistiarren ekialdeko muga bat dator B-ren Gipuzkoako aldakiarekin.

Hauxe da Caro Barojaren ondorioa:

Parece lícito suponer, en consecuencia, que en la época romana ya los vascones, vardulos y caristios tendrían sus dialectos propios dentro de un idioma común (Caro Baroja 1945: 34).

Beraz, leinuek Hegoaldeko euskalkiak azalduko lituzkete: karistiarrek bizkaiera, barduliarrek gipuzkera eta baskoiek goinafarrera.

Leinuen hipotesia elizbarrutien hipotesiarekin lotu eta jarraipen historikoa eman zitzaion. Lotura hori, antza denez, jadanik Serapio Mujikak (1914-1917) seinalatu zuen, alegia elizbarrutiek antzinako leinuen jarraipena zirelako, eta iritzi berekoa izan zen Caro Baroja ere, besteak beste. Funtsean, Kalahorrako elizbarrutiak azalduko luke mendebaldeko euskara (Bizkaia, Araba eta Deba artoa), baina gauzak nahikoa zailtzen dira hortik aurrera egiterakoan. Edonola ere, leinuen zein elizbarrutien hipotesiaren aurka eman daitezkeen datu ugarietz gehiago jakin nahi duenak, ikus dezala Camino (2009: 473-477).

1.1.5. *Ikerketa diakronikoen abiapuntuaz*

Aldez jadanik ikusi dugun bezala, euskalkien gaineko ikerketen —baita ikerketa diakronikoen ere— ohiko abiapuntua XIX. mendeko zein XX. mendeko euskalkiak eta haien mapa direnez gero, horiek *garai jakin bateko* deskribapena edo argazkia baino ez direla alde batera utzirik—, haien ondorioak tautologikoak dira ezinbestean: gure datuak eta hipotesiak Bonaparteren gipuzkeraren mugen zein Zuazoren erdialdeko euskalkiaren mugen arabera sailkatzen ez ezik, ulertu ere ulertzen baditugu, XVI. mendean euskalki berberak ateratzen zaizkigu, eta XIII. mendean, eta IX.ean... Alabaina, hau hizkuntz aldaketaren teoriaz dakigunaren eta lekukotasunek dioskutenaren kontra doa.

Coseriu (1957) gogoratu bezala, dialektoak ez dira aurrez existitzen: ondoren definitzen dira ikertzaileak hautatzen dituen isoglosen bitartez. Beraz, ez dira *gauzak*, hizkuntz aldakortasunaren konplexutasun mugagabea ulertzeko (trinkotzeko) erabiltzen ditugun abstrakzioak baizik. Ikertzaileak zein ezaugarri kontuan hartu eta honen arabera dialekto gehiago edo gutxiago aterako zaizkio, eta mugak hemen edo han ipiniko ditu.

Dialekto sailkapenak, hortaz, datuak ulertzeko eta irudikatze eskaintzen diguten erraztasunaren arabera dira baliagarriak. Ez dira *egia* (cf. berriro *egia*-z 1. gaian esandakoa). Ahaidetasunei buruzko eztabaidan genioenez (ik. 3. gaia), diakronistari —zientzilariari, oro har— sailkapena ez zaio berez interesatzen, haren erosotasunagatik baino ez bada, azalpena baizik. Gure alorrean, zehazki, denboratxoa xahutu da behar ez diren galderei erantzuten: dialektoak leinuen edota elizbarrutien ondorioa ote? zein dira euskararen dialektoak? etab. Hizkuntzaren historia hizkuntz datuekin egiten den heinean, galdera onak honako hauek dira: euskara historikoaren ñabartasun dialektala nola garatu da? zein hizkuntz egoeratik dator?

Beraz, bazegoen —eta badago— euskalkiei buruzko ikuspegi historikoa aldatzeko behar handia. Aldaketa honen lehen urratsa Mitxelenak eman zuen 1981ean.

2. Mitxelena eta Euskara Batu Zaharra

1981ean Mitxelenak *Lengua común y dialectos vascos* artikulua argitaratu zuen. Lan honetan euskalki historikoen jatorria litzatekeen hizkuntz egoera proposatu zuen, berak erdaraz “éuskaro” deitua eta guk Euskara Batu Zaharra (EBZ) deritzaguna.

Hipotesiaren oinarria honetan datza, alegia, euskalkien arteko bereizkuntzak txikiak direla eta, beraz, edozein hizkuntzalari historikok pentsatuko luke ez direla aspaldikoak, beren baitan gordetzen duten informazioak ezin baikaitu urrutiegi eraman berreraiketan.

Lekukotuak ditugun ezberdintasun dialektal zaharrenak Erdi Arokoak dira:

- *i-/u-* (mend. *uri* / erd-eki. (*h*)*iri*)
- *-ar/-er-* (mend. *barri* / erd-eki. *berri*)

Lehenengoa, egia da iluna dirudiela, baina ez digu bokalismo zaharragorik berreraikitzeke balio. Bigarrena, berriz, munduko hizkuntzetan oso arrunta den $e > a / _ R$ arauaren ondorio baino ez da.

Gainerako ezberdintasunetako asko modernoagoak dira: *ginean* dugu bizkaierazko testu zaharretan, gainerakoen *ginen*-en pareko, eta *gintzazan* ‘ginen’ ezberdinagoa XVIII. mendera arte ez da lekukotzen. Antzeratsu, gorago ikusi dugunez, *ditu* komuna edota *dituz* pleonastikoa ditugu bizkaierazko testu zahar eta modernoetan, *dauz* bereizgarria XIX. mendera arte ez baita agertzen. Mitxelenak berak dioskunez, “[d]e acuerdo con las convenciones universalmente aceptadas en lingüística histórica y en la comparación en concreto, no se pueden tomar en consideración para establecer relaciones interdialectales antiguas hechos cuyo carácter moderno queda de manifiesto al consultar los textos” (Mitxelena 1981: 527).

Euskalkiak elkarrengandik urruntzen sumatzen ditugu testuetan, baina dena dela oraindik ere hurbil dira ezaugarri nagusi anitzetan eta, beraz, hurbil behar luke izan haien guztien iturburuak. Ikus ditzagun partekatutako ezaugarri nagusi horietako zenbait.

DEKLINABIDEA funtsean bat da guztietan, mendebaldeko testu arkaikoetan *-rean* ablatiboa (*etxerean* ‘etxetik’) eta *-gaz* soziationa bereizgarri direla egia bada ere. Noiztik edo noraino dira bereizgarri, ordea? Ablatibo arkaiko hori bizkaieran (B-n) ez ezik, Arabako euskaran ere (A-n) ondo lekukotzen da, eta handik kanpora gipuzkeran (G-n) behintzat ez gaizki, *eskuren* (< *eskurean* ‘eskutik’) baitago Tolosako bertso iraingarrietan (TAV § 3.1.25, 22) eta *ondoren* ‘ondotik’ fosila G-zko tradizioan. Zabalduago egon ote zen? Hori ez dakigu ziur, baina bada Leizarragaren *gaineandu* ‘gainetik ipini’ ere atzizki beraren bitartez azaldu duenik, esate baterako. Soziationa bereizgarri dela ezin uka, A-n ere badagoela erantsiz gero behintzat. Hala eta guztiz ere, haren osagaiak orokorrak dira: *-ga* bizidunen leku-kasuetako atzizki bera baino ezin da izan (*amaren-ga-n*) eta *-z* instrumentala, jakina. Gogoan hartzekoa da, halaber, *-kin* ere badugula mendebaldeko eremuaren zati handi batean, hala A-n nola B-ren ekialdean.

Euskal Herri osoan ERAKUSLEAREN lehen eta bigarren graduetan absolutiboaren eta gainerako kasuen enborrak txandakatzen dira: (*h*)*au/hon-* (*honek*, *honetan...*), (*h*)*ori/horr-* (*horrek*, *horretan...*). B-k ez du bereizten absolutiboa eta gainerako kasuak 3. graduan (*hura* : **har-* > *haren*, *hari*, etab.), baina lekukotasun zaharretan artikulua gisa hiru erakusleak darabiltza, gainerako euskalkiek bezalaxe: mendebalde oso zabal batean **-aur* lehen graduko artikulua *-au* eman du (*-r* galduta, *a* erakuslea < **har*, *nok* ‘nork’, *hirur*, *laur*, etab. bezala), eta Iparraldean *-or* monoptongatua (cf. *hau berau* vs. *haur beror*).

B-ko *neu*, *zeu...* Lazarraga, Axular, Peñafloida eta Iztuetaren testuetan bederen lekukotzen diren eta behinola orokorrak izan ziren *neur*, *zeur...* izenordain forma indartuetatik datoz (berriro ere bukaerako *r* galduta); bidenabar, *neroni*, *neronek*, eta gainerakoek ere *neur* dute hasieran (**neur* > *ner-* monoptongatua); aldiz, Iparraldeko *nihaur*, *zuhaurk* eta gainerakoek forma berreginak edo analogikoak dirudite (< *ni* + *haur*).

ADITZEAN berdintasunak kontaezinak dira: hainbat gehiago zenbat eta testuak zaharrago. Berdinak dira denbora, modu eta aspektu sistema, forma trinko eta perifrastikoen banaketa, laguntzaileak (**edin*, **ezan*, *izan*, **edun*) eta alokutiboak. Modua adierazteko erabilitako *-te/-ke* atzizkiak ere kidetasunen artean aipatu behar, *daite* arkaikoa eta haren ondorengo *daiteke* modernoa lekuko, baina funtsezko batasun bera aurkitzen dugu, laguntzailea ezberdina izan arren, *da(g)ike / dezake / diroke* hirukotean.

B-ren ezberdintasuna azpimarratu ohi dutenentzat, Mitxelenak gogoratzen digu *deust / dit* eta *da(g)ike / dezake* bikoteek irudikatzen duten muga dialektal gotorra ez dela alde honetatik Euskal Herrian den muga bakarra, ez baitira bikoteak egiatan, hirukoteak baizik:

deust / dit /deraut

da(g)ike / dezake / diroke

HITZ ERAKETAN ere baliabideak sarritan partekatuak dira: zaharrago eta gehiago. Adibidez, *-aga*, *-(k)eta* eta *-zu* atzizkiak Euskal Herri osoko toponimian agertzen dira. Halaber, *-bait* atzizkia orokorra da (*norbait*, *nonbait*, *zelanbait/nolabait...*), nahiz aditz aurrizki modura ekialdekoa baino ez izan (*baitugu*, *baitira...*): XVI. mendean, ostera, *Refranes y Sentencias*-en aurkitzen dugu, ziurrenik erretrauetan fosildurik baino ez bada ere: *Zelan baista oxala, alakoa mendela* “Cual es el paño, tal es el orillo”.

LEXIKOAN batzuetan oso nabarmenak diren ezberdintasunak baditugu, egia: *jazo* arrotz dute *gertatu* edo *suertatu* esan ohi dutenek, baina *arerio* arrotzago ote dute *izterbegi* baino *etsai* esan ohi dutenek? Nolanahi ere den, Añibarroren intuizioa gogora dezakegu (Villasante 1963: 21): *iratzarri* dugu mendebaldean eta *esnatu* G-n, baina ondoko euskalkietan berriro *iratzarri/iratzartu* formak agertzen zaizkigunez, pentsatzekoa da antzina *iratzarri* orokorra izan zela, eta *esnatu* G-ren berrikuntza izan dela.

FONOLOGIAN ere, aski modernoak dira txistukarien arteko oposaketan galera (*s/z > s* eta *ts/tz > tz*), testu arkaiko guztietan eta testu zahar gehienetan apikariak eta lepokariak argi berezirik daude eta. Aipatu ohi diren beste bereizkuntza “salbaezin” batzuk ere arinak eta arestikoak direla ikusteko modua erraz topatzen dugu: noizkoa izan daiteke B *baltz*, euskalki honetan bertan *gibel*, *ubel*, *orbel...* izanik, **bel* erroaren antzinatasunaren froga gisa?

Ezaugarri (zahar) partekatuak bezainbeste aipatzekoak dira **berrikuntza konpartituak**, hala nola ozenen bilakabideak bokal artean (*n > h*, *l > r*, *N > n* eta *L > l*), herskariaren ahoskuntza hitz hasieran, hitz elkartuen lehen osagaietako bokal zein kontsonateak pairatu zituzten Erdi Aroko aldaketak (*baso* → *basa-*, *iturri* → *itur-*, *errege* → *erret-*), artikuluaren sorrera (**ha(r)* erakuslea > *-a* art.), plural berria (*-aga > -ak*).

Hau guztia kontuan harturik, Mitxelenaren ondorioa izan zen aitzineuskarak (AE) ez digula euskalki historikoen jatorritzat balio, ezta AE-rik modernoek ere, hau da, erromatarrak hona iritsi aurrekoak. Vogt-en ustea aipatzen du Mitxelenak, alegia, euskara modernoa AE-tik zuzenean baletor, egun ez litzatekeela hizkuntza bakarra izango, hizkeren arteko ulergarritasuna askozaz zailagoa eta ezberdintasunak ere larriagoak baizik.

Gogoeta hauek eraman zuten Mitxelena EBZ proposatzera, euskararen garai berezi eta ezinutzizkotzat, K. ondoko V-VI. mendeetan:

Si postulo, pues, un éuskaro, (trato de evitar confusiones molestas con protovasco o con vasco antiguo, que podrían tener distinta definición) como base hasta cierto punto unitaria de las variedades vascas históricas que nos es dado conocer a lo largo de la historia, lo hago sólo en el supuesto de que se trataba de una *koiné*, de una lengua común que aproximó y unió una dispersión y una diversidad que habían sido mucho mayores. Luego, ¿cómo no?, esta lengua común se diferenció en variedades cada vez más divergentes, que no llegaron a constituirse en lenguas diferenciadas porque, por la continuación del contacto material entre las varias zonas dialectales, y los fenómenos de convergencia que se siguen inevitablemente de él, lo impidieron. ¿Hasta qué punto intervienen también en esto la exigüidad de espacio y de número de hablantes? (Mitxelena 1981: 307-308).

Hortaz, historiaurrean bi garai hipotetiko ezberdin kokatu zituen Mitxelenak: AE eta EBZ. Bien artean alde kronologiko eta metodologiko handia da: AE berariaz berreraiki litekeen garairik zaharrena dugu, eskura diren lekukotasun eta lanabesek baimentzen diguten urrunena; EBZ, aldiz, dialektalizazio historikoaren aurreko aldia dugu, dialekto historikoak azaltzeko aukeratzen dugun lehen isoglosa sortu zenekoa, ez bost edo hamar mende lehenagokoa.

Teoria honen arabera, beraz, euskalki modernoak ez datoz zuzenean AE-ren zatiketarik, baizik eta EBZ-ren zatiketarik, ia 1.000 bat urte geroago. Berez nola edo hala zatikatuak bide ziren antzinako dialektoak tarte hartan nolabaiteko batasun prozesu batean sartu ziren, hots, lehenagoko bereizkuntzak ematu ziren eta berrikuntza garrantzitsuak partekatuko zituzten.

Alabaina, hizkuntzak berezko dute etengabe zatikatzea, baina ez dira *berez* bateratzen —salbuespen ezagun bakarrak pidginak eta kreolen lehen garaiak dira—: zerbaitek edo norbaitek bateratzen ditu. Antzeko bateratzeak lekukotu diren hizkuntza eta garai guztietan bezala, hemen ere hizkuntz sistemaz kanpoko indarren edo gertakarien eragin zuzenean pentsatu behar, hau da, bateratze horren arrazoi historikoak bilatu behar.

Mitxelenak Erromako Inperioaren erorikoaren ondoko baldintzak egokituz jo zituen hizkuntza bateratze horren hizkuntzaz kanpoko oinarriak aurkitzeko. Barbero eta Vigil-en (1965) eredu historikoan oinarriturik —laburbilduta, Penintsulan barbaroen inbasioen ondotik sortu anabasak kantabro eta baskoien independentzia ekarri omen zuen—, Mitxelenak uste zuen III. mendetik jadanik nasaituxe behar zituzten kanpoko aginteezko loturak are nasaiagoak bihurtu zirela V. eta VI. mendeetan, eta barneko indar eta antolamendua sendoago. Honek ezinbestean hizkuntzan ere eragina izan behar, lehenagoko zatikatze eta isolamenduaren aurkako joerak eta edozertariko mugak igarotzeko gauza ziren forma komunak izatearen aldeko joerak sustatuz.

Dialektalizazioa, euskalki historikoen sorrera, beraz, VI. mendetik aurrerakoa izan behar.

2.1. Mitxelenaren ondoren

Mitxelenak bi ekarpen ezinutzizko egin zizkion, beraz, euskal dialektologia historikoari: Arabako euskara azaleratzea (1958) eta euskalki historikoak azaltzeko EBZren beharra aldarrikatzea (1981). Hala ere, bi ekarpen hauek iradokitzen duten eredu metodologikoa ez zuen sekula garatu, eta ondoko euskalariak ere ez.

Erronka horri inork zuzenean eta agerriki heldu badio, hori Koldo Zuazo da. Bonaparteren sailkapena gainditu nahiz, eta hark baino irizpide hobek eta esplizituagoak erabiliz, gaurko euskalkien sailkapena eratzeaz gain, Arabako euskararen izaerari (Zuazo 1989, 1998b, 1999, [2007], 2012, 2013) eta inguruko hizkerari (2006, 2010, etab.) heldu die batetik, eta bestetik proposatu dituen sei euskalkien sorlekuari (2007, 2014, etab.).

Zuazoren abiapuntua Mitxelena (1981) da, hots, EBZ-ren hipotesia: “Badirudi, azken batean, euskalkiak erromatarren inperioaren ondorengo garaian, Erdi Aroan barrena sortutakoak direla” (Zuazo 2014: 47), euskalkiak zuzenean leinuengandik datozkigulako hipotesia behin betiko alde batera utzita. Bere buruari dialektalizazioa noiz eta non hasi zen galdetuta, ez da gauza sentitzen noiz hasi zen zehazteko, “baina badirudi mendebala eta ekialdea izan zirela besteetatik bereizten eta aldentzen lehenak” (*ib.* 59), eta bietan lehena berak mendebaldekoa (A, B) izan zela proposatuko luke (*ib.* xxxx).

Non hasi zen eta galdera honi bai erantzun diola, sei euskalkientzat sorleku bana proposatuz eta horretarako zenbait arrazoi historiko aipatuz. Hauek dira sorlekuak (Zuazo 2014: 49-59):

1. Iruñea
2. Arabako Lautada
3. Ekialdea
4. Beterri (Tolosa-Andoain-Hernani-Donostia)
5. Bizkaiko erdigunea (Durango-Zornotza-Gernika-Bermeo)
6. Lapurdiko itsasbazterra

Honela egokitzen zaizkio sorleku hauek Zuazoren sailkapenari:

- a. nafarra (1)

- b. zuberotarra (3)
- c. erdialdekoa (4)
- d. mendebalekoa (5)
- e. nafar-lapurtarra (6)
- f. Arabakoa (2)

Zuazok lan itzela egin du hizkerak aztertzen, ezaugarriak biltzen, euskalkiak sailkatzen, eta abar. Horretan dudarik ez dago. Hala eta guztiz ere, hizkuntzaren historiaren ikuspegitik — eta dialektologia historikoaren ikuspegitik berebat— bizpahiru iruzkin orokor egin behar zaizkie bere ondorioei.

Lehenik eta behin, Zuazoren ondorio historikoak tautologikoak dira, gorago azaldu dugun zentzu berean: sei euskalki ditu gaurko euskarako bostei Arabako euskara galdua erantsirik, eta seion sorlekuak non izan ziren argudiatzeko arrazoi historikoak bilatu ditu. Sei euskalkitatik sei sorleku ateratzen dira, eta sei sorlekutatik sei euskalki, gurpil zoro moduan. Uko egin dio sei euskalkien kronologia erlatiboa bederen eratzeari, bildu dituen arrazoi historikoetatik, nahi izanez gero, halako zerbait eratu badaiteke ere.⁶ Bere hasierako baieztapenera itzuli behar dugu, bada: berak aintzat hartzen dituen sei euskalkiak, guztiak dira “Erdi Aroan barrena sortutakoak”.

Sei euskalkietarako arrazoi historikoak bilatzea ez dago txarto, jakina. Baina, gure hurrengo galdera izango litzateke: eta, orduan, *nola* sortu ziren? alegia, zein ezaugarri definituko litzateke dialekto horiek sortzerakoan? Eta hemen datu anabasa ikaragarri batekin egiten dugu topo, Zuazok berak tarteka aitortzen duenez; adibidez, mendebala eta erdialdea Ipar Euskal Herriaren eta euskara nafarraren aurrez aurre jartzerakoan: “Ondoren aurkeztuko ditudan gertakariak garai ezberdinetakoak dira. Zaharrak dira batzuk, XVI. mendea baino lehenagokoak; berriagoak besteak” (*ib.* 229).

Ikuspegi historiko batetik, datu guztiek ez dute balio bera. Isoglosa zaharrek banaketa zaharrez hitz egingo digute, eta isoglosa berriek berriez. Honegatik, euskara historikoan — testuetan antzemateko moduan— gertatu diren berrikuntzak —txistukarien neutraltzea edo *al* galde-partikularen gramatikalizazioa, esaterako— ezin ditugu erabili Erdi Aroan sortuak omen diren euskalkiak definitzeko.

3. Dialektalizazioa aztertzeo oinarriak

Mitxelena (1981) lanaz geroztik, jakintzat ematen dugu euskalki historikoak ez direla aitzineuskararen (AE) ondorio, ezta euskal tribu edo leinuen mintzoen oinordeko ere, baizik eta zortzi-hamar bat mende beranduagoko EBZ-renak.

Alabaina, EBZ izaki hipotetiko huts bat da, ezaugarri linguistiko zehatzik erantsi ez zaion neurrian. Joera azken urteotan aldatuz badoa ere, alde batetik filologo eta diakronistek histori datuen gaineko historiaurreko hipotesiak eratu baitituzte tarteka, eta bestetik Aeren berreraiketan atzerago heldu baikara, bi garai ezberdin bereizirik, artean EBZ-k linguistikoki definitu gabe dirau.

Bestalde, dialektologiak ezer gutxi ekarri dio AE-ren berreraiketari eta euskararen historiaurrearen azterketari, ezer ekarri badio. Ez da harrizkoa, zeren eta gurean, hasteko, euskalki sailkapena (1863-1869) AE-ren berreraiketa (1957-1961) baino askoz lehenago eratu baitzen, hizkuntza erromantze, germaniko eta indoeuoparretan ez bezala. Sailkapen horri, gainera, balio pankronikoa eman zaio, euskalkiak aldatuko ez balira bezala, ez euren ezaugarrietan (*dogu / degu / dugu / dügü* betidanikoak bailiran, kasu), ez euren mugetan, ez euren kopuruan ere. Dialekto modernoetatik abiatuz —izan Bonaparterenak, izan Zuazorenak—,

⁶ Iradokizun solteak dira, egia esatera, han eta hemen: horien arabera, Iruñea litzateke lehen ardatza (*ib.* 49), mendebaldeko euskara handik berezi eta Arabako Lautada zatekeen ardatz berria (*ib.* 50) eta, halaz ere, “XV-XVI. mendeetarako behinik behin, Bizkaia ez zegoen hara begira; bertan sortzen ziren berrikuntzak” (*ib.* 55).

historiaurreari buruzko edozein ondorio kutsatuta dago edo, gorago erabili ditugun hitzetara itzulirik, tautologikoa da.

Munduan barrena, dialektoak ez dira dialektologoen kontua bakarrik eta, beraz, gure atzerapenaren errudun bakarrik ez dira eurak, jakina. Izan ere, dialektalizazioa prozesu historiko bat da, eta hau aintzat hartuta aztertu dira —eta aztertzen ere dira— honetan aurreratuen dabilizan hizkuntza eta hizkuntz familiak.


Hala bada, Lakarrak (2014) funtsean dialektalizazioa aztertzeko oinarri teoriko-metodologikoak ezarri nahi izan ditu, baita oinarri horien aplikazioak euskarari lekarzkiekeen ondorio eta arazoak aurkeztu ere. Lakarraren asmoa, bada, hirutan utzi daiteke: (1) aitzin-hizkuntzaren (AH) hausturez eta dialekto eraketaz gogoeta egin, hizkuntza tradizio aurreratuenetan diren ereduak baliatuz; (2) EBZ-k AEM-rekiko izan zitezkeen ezberdintasunak aztertu, EBZ benetan beharrezkoa den ala ez neurtzeko; (3) banaketa bitarrak euskararen zein ondorio eta arazo lituzkeen miatu.

3.1. Banaketa bitarrak

Indoeuropearen, austronesieraren, kartvelieraren zein bantu familiaren dialektalizazioa irudikatzen dituzten zuhaitzak (ik. Lakarra 2014: 166-167), guztiek partekatzen dute ezaugarri nabarmen bat: banaketa bitarren arabera eratuak dira. Beste era batera esanda, zenbat dialekto hainbat eten markatzen dira, eta etenok sekula ere ez dira altuera berekoak, batzuk besteen azpikoak baizik. Honek adierazten du zuhaitzaren azpian dialekto zatikatzeari —dialektalizazioari— buruzko teoria bat datzala, batetik, eta kronologia hipotesi bat, erlatiboa gehienetan, zehatza ahal denean.


Teorian, ezaugarri garrantzizko baten —gutxiagotan ezaugarri multzo baten— aurrean bi taldetan (demagun, A eta B) banatu ohi dira hizkera guztiak: A taldean egongo dira *a* delako aldaketa jasan dutenak, eta B taldean *a* jasan ez dutenak. Ezaugarri hori berrikuntza bat izanik, “A dialektoa banatu egin da B aitzin-hizkuntza edo familiaratik” esan ohi da.⁷

Gure zuhaitzek, ordea, euskalki guztiak EBZetik denak batera banatu zirela irudikatzen dute. Ezaugarri batekin errazago ulertuko denez, gure adibidearekin jarraiturik, halako zuhaitzek irudikatuko lukete **dadugu* aitzinformatik behingoan *dogu*, *degu*, *dugu* eta *düğü* sortu zirela VI. mendetik aurrerako data jakin batean:



Hau, noski, ez da honela. Fonetikak dioskunaren arabera, gure adibidearen egiazko bilakabidea —apur bat sinplifikaturik aldaketa fonetikoaren aldetik— honako hau litzateke:

⁷ AH-ren azpikoak batzuetan hizkuntzat hartzen ditugu eta bestetan dialektotzat, arrazoiak arrazoi. Hemendik aurrera, hizkuntza/dialekto dikotomia horrek guretzat hemen garrantzirik bat ere ez duenez (azken batean, esaterako, latina IE-ren dialekto bat baino ez da, eta ingelesa aitzingermanikoarena) eta nahasgarri gerta dakigukeenez, AH-ren ondoko zatikatzei betiere “dialekto” deituko diegu.



Azken batean, EBZ-etik hamaika adar, denak batera, ateratzen dituen ikuspegia desegokia da isoglosen espazio-dimentsioa (geografia) bakarrik hartzen duelako kontuan, baina ez haien data (diakronia): izan ere, isoglosek hedadura ezberdinak ez ezik, data ezberdinak ere badituzte. Adibidez, norbaitek erabaki dezake gaur *al* galdera-markaren isoglosa ezin adierazgarriagoa dela gipuzkera (G) definitzeko, baina testuek esaten digute ezaugarri honen hedadura (ziurrenik *ahal*-en beste gramatikalizazio bat baino ez da-eta) XVIII. mendetik honanzkoa baino ez dela; hortaz, ez luke XVI edo VIII. mendeko G bat bereizteko balio, data horietan horrelakorik egotekotan. Beste adibide bat: euskara historikoan lehenaldiko adizkietan “z > ø” ezaugarria (*egoan* ‘zegoen’, *egozan* ‘zeuden’, etab.) eskubide osoz balia dezakegu bizkaiera (B) bereizteko; hala ere, egun z-ren azken arrastoak badirela (*zan*, *zirean*) eta Euskara Arkaikoan-eta arrastook gehiago zirela (*zidin* ‘zedin’, *zitean/zitezcan* ‘zitezen’) ikusirik, erabaki behar dugu aurreko menderen batean gaur B-ren eremuan diren hizkera guztiek ere z- zutela lehenaldian. Berrikuntzaren data zehatza ez dugu erraz jakingo, gure lekukotasunak beranduagokoak direlako, baina bistan da historiaurreko (zehazki, EBZ-ren ondoko) uneren batetik atzera honek ez zuela inongo dialektorik bereizten, berrikuntza sortu gabe zegoen-eta.

Bil ditzagun bi adibideok: “z > ø” isoglosak aspaldi banatu ditu B eta gainerako euskalkiak; “*al* galdera-marka” isoglosak berriki baino ez ditu banatu G eta gainerakoak. Honek esan nahi du —bistan da— data ezberdineko isoglosak direla eta, are garrantzizkoago, ezin dakiekeela garrantzi bera eman. Hauxe dio Lakarrak ondorioz:

Euskalaritzan erabili ohi diren dialekto sailkapen horietarik kanpora utzi ohi da, ordea, diakronia, gainerako familietan adarkatze bikoitzaren bitartez dialektologiak eta diakroniak beren lanaren egiteko nagusizat hartu dutelarik ezaugarrien garapenaren azterketa, aldaketan hurrenkera eta banakea dialektalak lotuaz (Lakarra 2014: 172).

3.2. AH-ren aldakortasuna eta dialektalizazioa

Petit (2007) lanean oinarriturik, Lakarrak indoeuoperaren arkaismo eta berrikuntzen azterketan izan diren hiru hurbilketa nagusiak aipatzen ditu: (1) genealogikoa edo “Sleicher-Leskien”; (2) geografikoa; eta (3) kronologikoa edo “Meid-ena”. Geografikoa ezagunagoa denez (dialektologoen ohiko hurbilketa da, gorago azaldu bezala), beste biak ezagutarazi nahi ditu, ez baitira euskalaritzan sekula aplikatu, antza denez.

3.2.1. “Sleicher-Leskien” hurbilketa

Hauxe dugu gaur egun ere gehien erabiltzen dena, nahiz ezaguna izan praktikan arazoak ematen dituela. Dena dela, honen arabera dialektoa ez da definitzen osatzen duten hizkerak partekatzen dutenagatik (usuenik, euren AH-tik datorrenagatik, alegia),⁸ baizik eta jatorrizko

⁸ Garrantzizkoa da ulertzea pasarte honetan AH aipatzen dugunean ez dugula dialekto guztien AH-z hitz egin nahi, baizik eta ezaugarri partekatua duten dialekto horien AH, hots, beheragoko adarkatze batez, beheraxeago zehaztuko dugunez.

egoeraz (AH-z) geroztik hartu dituzten ezaugarriengatik. Beraz, berrikuntzak aztertuko dira nagusiki, hautuen eta arkaismoen kaltetan.

Honek esan nahiko luke bi dialektok berrikuntza bat partekatzen badute, gainerakoek ez dutena, biok azaltzeko A aitzin-hizkuntza berreraikiko genukeela, bien ama-hizkuntza izan zena. Haatik, hau automatikoki aplikatuz gero, zenbat berrikuntza partekatu hainbat AH beharko genituzke, anabasa itzela sorturik. Honegatik, oso gogoan izan behar dugu —gorago ikusi bezala— berrikuntza guztiek ez dutela garrantzi bera.

Bada beste arrazoi pisuzko bat eredu honekin tentuz lan egiteko: izan ere, ahal dela ezinbestekoa da berrikuntza partekatuak (AH-tik datozenak) garapen paraleloetatik bereiztea, alegia, bi dialektok bakoitza bere aldetik modu paraleloan garatu dituztenetatik. Honegatik, jadanik Meilletek (1908) hiru murriztapen ezarri zizkion eredu honi: (1) antzinatasuna; (2) bakantasuna; eta (3) hurbiltasuna.

Garrantzitsuena antzinatasuna bide da: sailkatzeko, AH-k hartzen dira kontuan, ez dialekto historikoak, nahiz hauek oso-oso aspaldikoak izan. Adibidez, indo-iranioa⁹ ez da berreraikitzen hindi modernoa eta kurduera erkatuz, ez eta hiru bat mila urteko sanskritoa eta avestikoa¹⁰ erkatuz ere, aitzin-indioaren eta aitzin-iranioaren gainean baizik. Gure neurrietan ulertzeko, imajina dezakegu zer-nolako AE aterako litzatekeen Arratzuko (B) eta Altzürüküko (Z) euskara soilak erkatuz gero: berreraiketa bermez egin ahal izateko, gutxienez B arkaikotik eta Z arkaikotik abiatu beharko ginatke eta, are hobeto, aitzinB eta aitzinZ-tik (betiere horrelakorik berreraiki beharko balitz, noski).

Bakantasanaren irizpidearen arabera frogatu behar dugu ezaugarria ez dela arruntzia — munduko bazter guztietan paraleloki garatzen diren horietakoa, esaterako gizakion artikulatze-moduari dagozkionetakoa—. Hortaz, zenbat eta berrikuntza bakanagoa izan, bitxiagoa, hainbat sendoagoa izango da haren gainean eraikiko dugun dialektoen arteko erlazioa.

Hurbiltasanaren hatsarrea aplikatzekoa da aztertzen ari garen dialektoak bata bestetik nola edo hala urrun daudenean: beharrezkoa da, bada, inoiz hurbil egon direla frogatzea, eta hurbiltasun hori une egokian izan zela ziurtatzea, hau da, hain justu berrikuntza hori partekatzeko moduko unean.

Hainbat muga eta oztopo gehiago jarri zaizkio Leskien hatsarreari. Sakondu nahi izanez gero, ikus Lakarra (2014: 173-175). Berak aipatzen dituenetan bat bakarrik azpimarratuko dugu hemen: Watkins-ek aspaldixko erakutsi zuen batzuetan arkaismo bat gorde izanak dialekto batzuek gainerakoen aurrean duten nortasuna erakuts dezakeela; bere hitzetan esanda: “Bi hizkuntzak [= bi dialektok] funtsezko ezaugarri bat gorde badute, beste zerbaitekin ordezkatu beharrean, baliteke gordetzea bera oinarrizko datu dialektal bat izatea” (ap. Lakarra 2014: 175; nik itzulia).

3.2.2. *Meid-en denbora-espaziokoa*

Dakigunez, metodo konparatzaileak ezinbestean AH eskematikoak berreraikitzen ditu, hizkuntza bakar eta bateratuak bailiran, dudarik gabe izan zuten aldakortasun diatopiko eta diastratikorik gabe. Meidek, ostera, proposatu du benetako hizkuntzak bailiran ikertu behar direla.

Hala bada, edozein hizkuntzak legez, AH-k hiru motatako ezaugarriak izan bide zituen: (1) arauari dagozkionak;¹¹ (2) arkaismoak eta (3) berrikuntzak. Meiden ustez, dialekto historikoen arteko ezberdintasun nagusiak haietako bakoitzean hiru sail horietako ezaugarriek izan duten konbinaketaren bilakabideari zorko litzaizkioke.

⁹ Familia indoeuroparraren adar oso garrantzizko bat, ekialdekoena, egun familiako adarren artean hitzun gehien omen daukana.

¹⁰ Avestikoa batez ere ezaguna da zoroastrismo izeneko filosofia eta erlijioaren hizkuntza delako, baina gainerakoan aspaldian hizkuntza hila da.

¹¹ Ulertu behar dugu “araua” dela garai bakoitzean hiztunentzat emankorra dena.

Ikus dezagun lehenik baieztapen horrek sortzen dituen aukera egiantzekoenak, eta gero erabiliko dugu euskal adibide batean:

- H₁ hizkuntza arkaismoak eta araukoak galdu eta berrikuntzak garatu ditu;
- H₂-k bai araukoak bai berrikuntzak gorde, baina arkaismoak galdu ditu;
- H₃-k arkaismoak eta araukoak galdu eta berrikuntzak gorde ditu;
- H₄-k arkaismoak, araukoak eta berrikuntzak gorde ditu.

Euskaraz indikatibotik kanpoko N-N laguntzailearen banaketa historikoa izango dugu adibide, B, L eta Z dialektoetan, testuetan lekukoturik dauden bakoitzaren egoera zaharra (BZ, LZ, ZZ) modernoarekin (BM, LM, ZM) erkatuz:

	BZ	BM	LZ	LM	ZZ	ZM
*iron	—	—	+	—	+	+
*ezan	+	—	+	+	+	+
egin	+	+	—	—	—	—

Honela irakurri behar da taula Meiden arabera (eta Lakarrak aditzon banaketa historikoki azaltzeko egin duen hipotesi berriaren arabera ere, noski): BZ-k EBZ-ren araua eta berrikuntza hartu ditu, arkaismoa galdurik; BM-k, aldiz, araua galdu eta berrikuntzarekin gelditu da. LZ-k EBZ-ren arkaismoa eta araua hartu, baina LM-k arkaismoa galdu eta arauarekin gelditu da. ZZ eta ZM-k, ostera, gorde egin dituzte EBZ-etik heredatutako arkaismoa eta araua.

Meidenen ustez, dialekto bakoitza AH-tik banatu denean honek eraketa ezberdina zukeen, hots, araua, arkaismo eta berrikuntza konbinazio ezberdinak. Honegatik, gure datuei kronologia ere erantsi behar diogu, era honetara, adibidez: A dialektoa banatu zenean AH-n X berrikuntza zen. Beranduago, B dialektoa banatzean, X araua zen. C banatzean berarekin eraman zuen X jadanik arkaismoa zen. D banatzean AH-k X arkaismoa galdua zuen. E-n arauatzat hartu zen W ezaugarria. F banatzean W jadanik arkaismo baino ez zen... *et sic de ceteris*.

Era honetara, beraz, hizkuntza familiaren hierarkia eta kronologia lor ditzakegu.

Itzul gaitzen gure euskal adibidera. Hauxe izango litzateke banaketaren aurkezpen geografikoa, funtsean *deskribapen* bat baino ez dena:

egin (mendebaldean) / **ezan* (erdi-ekialdean) / **iron* (ekialdean)

Honi diakronia ere eranstean badiogu, gaurko banaketaren *azalpena* ere aurki dezakegu. Lakarrak honelako irakurketa diakronikoa proposatu du:

1. **elon* (> **iron*) aditz laguntzaile modura gramatikalizatu (orokorra)
2. *ra-* aurrizkia (< **elon*) gramatikalizatu (orokorra)
3. **ezan* aditza gramatikalizatu (orokorra)
4. **iron* aditz laguntzailea galdu (Mendebaldeko eta Erdialdeko berrikuntza)
5. *egin* aditza gramatikalizatu (Mendebaldeko berrikuntza)
6. **ezan* laguntzailea galdu (B-ko eta A eta G-ko hizkera batzuen berrikuntza)

3.3. Lurraldea eta hizkuntza

Askotan entzun dugu “hizkuntza” zer den eta zer ez den ez dela beti argia, eta sarritan “hizkuntza” izena ematen zaiola hizkera multzo bati hizkuntzaz bestelako arrazoiengatik, nagusiki historiko-politikoengatik. Adibide askoren artean, gertutik ezagutzen dugun adibide bat ematekotan, valentzieraz honako hau esaten du euskarazko *Wikipedia*-k: “**Valentziara** (*valencià*) katalanak Valentziako Erkidegoan hartzen duen izena da, eta ofiziala da han. Katalan hizkuntzaren beste izen bat izateaz gainera, hizkuntza horren dialektoetako bat ere bada; hizkuntzalariak bat datoz horretan, baina Valentziako hainbat politikariek katalanetik at dagoen hizkuntza bat dela diote. Horrenbestez, Valentziako Autonomia Estatutuak «valentziar hizkuntza» aipatzen du”.

Izan ere, hala hizkuntzen arteko nola dialektoen arteko eten garbiak aurkitzeko hiztunen arteko espazio-eten nabarmenak behar ditugu, hau da, zerbaitek espazioaren aldetik ere banatu izana behar dugu: hiztun multzo bat aberritik beste norabait joan izana, adibidez. Hala ere, ez dirudi horrelakorik izan denik euskaldunen artean, salbuespenak salbuespen. Honegatik, irakasgarria izan daitezke guretzat ere Garrett-ek (1999) hego-mendebaldeko indoeuropar hizkuntzez egindako gogoetak.

Deigarria da IE-ren hego-mendebaldeko zuhaitzetan lehen mailako hainbat adar irudikatzea, nahiz arrazoi historikorik ez linguistikorik ere egon ez, AH hainbat hizkuntzatan behingoa zatikatu zenik sinisteko, euskalkiekin guri gertatzen zaigun bezalatsu.

Gainera, greziera, zeltera eta italikoa bezalako AHak proposatzeko, AH horien berrikuntza bereizgarriak horien ondokotzat ematen diren dialektoetan aurkitu beharko liriateke, eta ez da beti horrela. Arrazoa honetan datza, Garretten ustez: dialekto greko, italiko eta zeltikoek hasieran ez zuten gero grekotzat, italikotzat edo zeltikotzat sailkatuko zen edozeinekin beste taldekoekin baino lotura gehiago:

Eredu horren gakoa da data goiztar batean —hau da, K.a. bigarren milurtekoaren hasieran— gero zeltiko, edo italiko, edo greko bilakatuko ziren dialektoek ez zutela partekatzen ezaugarriak gainerako dialektoetatik bereizteko modukoa zenik. Kontua ez da berrikuntzak IE adar batetik bestera heda zitezkeela: hau oso ezaguna da. Kontua da hizkuntzaren aldetik ezberdintasunak egon arren, zeltiko bihurtuko ziren dialektoen *artean*, adibidez, ez zegoela ez ezberdintasun gutxiago ez gehiago *edozein* dialekto bikoteran artean baino. Denbora hartan, ez zegoen ezer zeltiko edo italiko edo grekotzat eman zitekeenik (Garrett 1999: 6; nik itzulia).

Garretten iritzian, beraz, zeltikoa, grekoa eta italikoa *gero* osatu dira —ikertzaileek osatu dituzte, alegia—, zeren eta IE-ren barnean azpimultzo zeltiko, italiko edo grekoa egiteko ez baitago froga historiko —hau da, genetiko— argirik. Alderantziz, badirudi *continuum* bat osatzen zutela K.a. III. edo II. milurtekoko uneren batean, eta ez dago inolako arrazoirik dialekto zeltikoen edo italikoen edo grekoen aurreko hizkuntz egoeretan berrikuntza bereizlerik zegoenik horrelakoak IE-ren azpimultzo bereiztat hartzeko modukorik.

Ondorioz, IE familiak omen dituen dozenatik gora adarrak “ameskeria historiko bat” baino ez dira, Garretten ustez. Alegia, XIX. mendean IE-ren idejara heldu ziren eta hizkuntzalaritza modernoa sortu zuten nazionalismoak bultzatuta. Orduan ekin zitzaion, nazioaren ideia indartzeko modu gisara, nazio literaturak eta haien kultur tradizioak aztertzeari. Hasieratik naziokako abiapuntu “zatikatu” honen zordun litzateke, bada, IE ulertzeko dugun modua. Hortaz, Garretten aburuz, IE-ren adar kanonikoak nabarmenki ez dira haien berreraiketa linguistikoaren ondorio, baizik eta nazio nortasunari atxikitako ikuspegi horren zordun. Bestela esanda, adar grekoa egotea, adibidez, nazio nortasun greziarra sortu izanaren subproduktua litzateke. Ironikoki, bada, IE-ren azterketa sustatu zuen lurraldez gaindiko indar berari egotzi behar diogu haren famili zuhaitzaren egiazko izaera ilundu izana ere.

Euskararen kasuan polikiago aztertzeko kontua bada ere, egia da paralelismo batzuk erraz aurki daitezkeela. Hasteko, Bonapartek euskalkiei eman zien izena lurraldeen izenei ezin lotuago dago eta, dena dela, nabarmena da lehenagotik ere (cf. Larramendi, adibidez) horrelako izenak erabiltzen zirela, nahiz eta Bonaparte, Larramendi, eta abarrak jakitun izan lurraldeen mugak eta euskalkienak ez zetoze beti bat. Ideia beraren adierazpen muturrekoagoa dago Sabino Arana

Goirirengan, zeinaren arabera, perfekziora iristekotan Deba arroakoek, adibidez, etorkizunean gipuzkera batuan edo hitz egin beharko zuten:

Lo que procede, en mi opinión, es componer dentro de cada región euskeriana que haya sido antes estado autónomo y se halle en la posibilidad de volver a serlo algún día, un dialecto general, formado con los elementos menos alejados de las formas orgánicas, esparcidas aquí y allá, en los diferentes subdialectos (...) y que ese dialecto así elaborado no sea patrimonio exclusivo de la literatura y la clase elevada de la sociedad, sino *habla que abatiendo y matando las formas usuales desechadas, llegase a generalizarse en el país y a ser común de doctos e ignorantes* (...). De esta suerte tendríamos un solo Euskera Guipuzkoano, un solo Euskera Nabarro, un solo Euskera Bizkaino, etc., viniendo a realizarse en la esfera lingüística la fórmula que en política tiene tantos y tan decididos partidarios, la variedad en la unidad, que correspondería exactamente a la que hubiese de regir en este último orden (*Lecciones de ortografía del euskera bizkaino*, 1896: 822; etzanak gureak).

Badirudi, beraz, “lurralde bakoitzak bere euskalkia” formula perfektura helduak ginela Arabako euskara edo “arabera” ere aipatzea dugunetik. Alabaina, lehendik iradokitzen ari garen bezala, formula horrek euskararen famili zuhaitzaren egiazko izaera ilundu besterik ez du egiten edo, lehen erabilitako hitzetan, tautologiak baino ez ditu sortzen. Adibide nabarmen bat jarriko dugu: Goierriko eta Urolako euskara XIII. mendean, zer dela eta hartu behar dugu G-tzat, hots, zergatik Hernani edo Donostiako euskararekin lotu? XVII eta XVIII. mendeetan —cf. “Azpeitiako gutunak” (1622) eta Zegamako dotrina (1741)— ez ezik, gaur ere $a + a > ea$ disimilazioa eta *egin* laguntzailea erabiltzen dituztenez gero, besteak beste, zergatik ez eman hego-mendebaldekotzat edo Araba-iparraldekotzat, Oñati eta Araiako euskararekin lotuz? Adibide polita izan daiteke baita lapurtera ere: lapurtera klasikoa ez balego, zer eman daiteke Bonaparteren sailkapeneko euskalki horren nortasunaren adierazletzat? Hain zuzen ere, lapurteran berezko berrikuntzarik aurkitu ez izanak azaltzen du Zuazoren sailkapenean lapurterarik ez egotea, “nafar-lapurtera” delako euskalkiaren barruan urtua baizik.

3.4. EBZ-ren eraketa, egitura eta haustura

Ondo dakigunez, hizkuntzaren historian balio duten benetako froga bakarrak hizkuntzazkoak dira. Alde honetatik, Mitxelenak (1981) ezarri zuen:

1. Euskalkiak ez datozela aitzineuskaratik (hau da, K.a. azken mendeetatik), baizik eta K.o. V-VI. mendeko aitzin-hizkuntza baten zatiketarik.
2. AH hau lehenagoko euskal hizkera ezberdin eta sakabanatuagoak bateratuz sortu zela eta, horrenbestez, gizarte egoera egoki baten ondorioz.
3. AH hori —hau da, EBZ— behar dugula hizkuntzaren bilakabidea zehatzago azaltzeko.

Hala eta guztiz ere, Mitxelenak ez zuen EBZ-ren beharra hizkuntz ezaugarriak erabiliz frogatu, eta geroko ikertzaileek ere ez dute osatu hipotesi honek ezinbestekoa lukeen alderdi hori. Egia da —gorago ikusi dugu— Mitxelenak euskalki historikoek partekatzen dituzten hizkuntzaren alor guztietako hainbat ezaugarri funtsezko bildu zituela; eta egia da, halaber, batetortze horietako asko ez direla hasierakoak (AE-koak), baizik eta geroztikoak, Mitxelenak berak adierazi bezala. Haatik, AE-tik datorrena EBZ-tik datorrenetik bereizteko lana ez du inork hartu orain artean.

Gorago esan dugu, berebat, Mitxelenaren EBZ-ren oinarri historikoak zaharkituak direla, alegia, historialariek garai hura interpretatzeko eredu aldatu dutela. Zer egin beharko genuke, orduan, euskalariok? Historian sakondu, oinarri egoki berrien bila? Ez, bada, gure lana baizik. Historialariek aurkituko ahal dute —edo ez— beste testuinguru egoki bat, baina bitartean, Lakarrak (2014: 183) dioenez, “gertakari pozgarrien edo hizkuntzalaritzaz atetiko oparien zain egon beharrean, iruditzen zait Mitxelenaren —eta gutariko gehienon— lehen zatiari lotzea komeni dela”, hots, EBZ-ren beharra hizkuntz datuen bitartez frogatzeari.

Izan ere, EBZ ez da, edo ez da nahitaez, bateratze baten ondorena (*koine* bat), euskalkien sorrera azaltzeko beharrezkoa dugun hizkuntza egoera bat baizik. Historialariek bilatuko dute,

nahi badute, egin dezakegun hipotesia kokatzeko une egokia, baina beste inork ez du gure lana egin behar. Hiru egiteko dituzkegu, bada:

- AE-tik ezberdina den EBZ-ren beharra frogatu behar
- AE-tik datorrena vs. EBZ-tik datorrena bereizi behar
- EBZ-tik euskalkiak nola joan ziren banatuz (zein ezaugarri gordez edo berrituz) aztertu behar. Hau da, aldaketen kronologia eratu behar.


Lakarrak (2014) egiteko larri horri lehen astindua eman dio eta hortik atera dezakegu AEMtik EBZra edo EBZ hautsi aurretik gertatu bide ziren aldaketen lehen zerrenda. Fonologiari dagokionez, honako arau ezagun hauek bereiziko ditugu Lakarrak (2014: 219) eman dozenatik gorako zerrendatik:

- T- > D- / # -
- *n > h / V - V
- \tilde{V}
- diptongoak
- *r > h
- *hVh > \emptyset Vh
- *d₁ > \emptyset / V - V
- *e > j / # - V
- l > r / V - V

Eta morfologian honako zerrenda hau eratu du:

- *IVC > -la
- -n > \emptyset (jo, lo)
- -o/-e > -a / -# (baso → basa-, bide → bida-)
- -tze aditzizena (handITZEN)
- *ezan lag.
- -z(a) pluralean (datoz, dabilZA)
- -aga IS-ren pluralean (*mendiAGA > mendiAK)
- -tzai artizkia aditzizenean (artZAItzen, galtZAItzeko)
- -kidi aditzean (dakIDIO ‘dakio’, *edin-en adizki arkaikoak)
- -eta IS-ren pluralean (mendiETAn)

Horrezaz gain, banaketa bitarrak nola funtzionatzen duen erakusteko asmoz, zenbait zuhaitz saio egin ditu Lakarrak. Har dezagun lehen banaketei buruzko haren hipotesia irudikatzen duena (Lakarra 2014: 213):



10. Figura. EBZ-ren lehen banaketak

Erreparatu ez bakarrik goitik behera datozen adarrei —adarkatze bitarrak betiere—, baita behetik gora doazen lerro etenei ere: hauek euskalkien arteko erlazio lektal modernoak —

jatorriarekin zerikusirik ez dutenak— adierazi nahi dituzte: adibidez, EkBN (ekialdeko behenafarrera) eta Z (zuberera) artean modernoki izan bide diren erlazioak, MBN (mendebaldeko behenafarrera) eta L (lapurtera) artean izan direnak —Zuazoren nafar-lapurtera ezaugarritzatu dutenak, hain zuzen— edota antzina A-ren ondorenak (Bizkaiko eta Arabako hizkera guztiak, salbu Arabako ekialdekoa (EkAr), B2-ren ondorengotzat joa) eta B1-ena (De-Ga = Deba + Gatzaga) hurbilduz joan direla iradokitzen duena.

Halaber, geografia politiko modernoari lotuak diren euskalki izenak alde batera utzita, Lakarrak bestelako izenak erabiltzea proposatzen du: MEZ (Mendebaldeko Euskara Zaharra), EkeEZ (Ekialdeko Euskara Zaharra) edo MeMu (Mendebalde Muturrekoa) bezalakoak, batetik, eta A, B, C, D letrak bestetik, aurreiritziak —linguistikoak zein geografikoak— saihestu nahirik: Bonaparte eta besteren izenak azken mailan bakarrik erabili ditu, geografikoki kokatzen errazte aldera batez ere.

Bi berrikuntza horiek —adarretzatze bitarra eta izen aldaketa— ez dira proposamenak dituen berrikuntza bakarrak: laster eztabaidatuko dugu lehen adabegian dakusguna. Orain beste zerbaitetan gelditu behar gara: erdibitze hauek (edo egin litekeen beste edozein proposamenetakoak) banan-banan zuritu beharko dira, hau da, zein ezaugarritan oinarritzen diren azaldu. Badukegu, beraz, zati baterako lana euskalki historikoetatik EBZ-ra eta honetatik haietara euskarak egin duen ibilbidea aztertzen eta berreraikitzen.

3.5. Non dago aitzin-aberria?

Goragoko zuhaitzak hamalau adar izan eta haietatik bederatzi Nafarroan dira. Areago, Err (erronkaria) eta C (lapurtera gehi baztanera) alde batera utzita ere, bost Iruñetik iparraldera daude: Dko guztiak, hots, HGN (hegoaldeko GN), Ae (aezkera), Zar (zaraitzua) eta Nafarroa Behereko biak (MBN eta EkBN); sei lirake Err batuz gero. Ez da horrelakorik Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban: beraz, badirudi mendebalde zabal horretan zatikatze dialektala ez dela hain handia, Ekialdeko Nafarroan, Iruñetik iparralderantz Aturriraino joanda dagoenaren aldean.


Askotan argudio gisa erabili da zatikatze gehien dagoen lekua dela aitzin-aberria, hizkuntzak haren sorgunean inon baino zatikatzeko denbora gehiago izan duelakoan; zenbat eta sorgunetik urrunago, aldiz, aniztasuna txikiagoa. Teoria hori onartuz gero —bada onartzen ez duenik, Lakarrak (2014: 215, 150. oh.) dioenez— Iruñaren iparraldera legoke EBZ-ren sorgunea eta bere hedapenaren abiapuntua.

Alabaina, orain artean aditzera eman dugu — Arratzu (B) eta Altzürükü (Z) adibide hartuta— axola gehien duten banaketak ez direla zuhaitzaren beheko mailan daudenak, hots, modernoak, zaharrenak baizik. Zuhaitzaren goiko adarretan daude eten zaharrenak eta, beraz, haietara jo behar dugu EBZ-ren aitzin-aberriaren bila:

Geografia linguistikoaren hatsarre klasikoaren arabera, (...) hizkuntza familiaren muga sakonenak izan behar du (...) lehen etenaren jatorria, hau da, aitzin-aberria (Janhunen 2009: 71; nik itzulia).

Honen arabera, goiko zuhaitzaren arabera eten nagusia EkeEZ (Z + Err) eta EkBN (ekialdeko BN + Zar) artekoa litzateke eta, hortaz, hantxe behar genuke kokatu EBZren aitzin-aberria.

Geografiari buruzko hipotesi bat egin dugu horrekin. Egin ote dezakegu zerbait lehenengo kronologiaren esparruan? Lakarrak (2014: 216-217) Guiteren saiora itzuli ditu begiak, gogoan izanik, bestalde, Lakarrak berak (2014: 205-206) *l*, *n* ondoko ahostuntzearen auzia berrikustea proposatu duela. Guiteren saioan bi ahostuntze ($mp > mb$ eta $nt > nd$) bakarrik aipatzen dira — gainerakoak ($lp > lb$, $lt > ld$ eta $nk > ng$) faltan—, bata 300. urtearen inguruan eta bestea IV. mendearen bigarren zatian. Ekialdean ahostuntze horien arrastorik ez dagoenez, euren ahoskabeak (*igante* ‘igandea’, *alt(h)e* ‘aldea’...) arkaismoa izan zein berrikuntza, eten hori Mitxelenaren EBZ baino lehenagotzat eman beharko genuke, koherenteak izatera:



11. Figura. X-etik EBZ-ra

Zuhaitz berri honetan, Ekialdea Mitxelenaren EBZ baino menderen bat lehenago zatikatuko zen enborretik —baldin eta ahostuntze gabeko ekialdeko formak (*igante* bezalakoak) berrikuntzat hartuko bagenitu—: horixe litzateke lehen etena eta sakonena. Honen arabera, aitzin-aberria Lizarrar-Ergoiena-Goizueta-Hondarribia lerroaren bi aldeetara zegokeen, Iruñaren mendebaldera, eta aurreko zuhaitzean (10. irudian) baino aski beranduago kokatu beharko genuke denboran. Aztertu egin behar zein litzatekeen EBZ berri eta berankorrako honen egitura eta kronologia linguistikoa (gehi eszenario historikoa, noski).

Bibliografia osagarria

- Camino, Iñaki, 2009, *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Donostia: Elkar.
- Campión, Arturo & Pierre Broussain, 1922 [1920], “Informe de los señores académicos A. Campion y P. Broussain a la Academia de la Lengua Vasca sobre unificación del euskera”, *Euskera* 3-1: 4-17.
- Caro Baroja, Julio, 1945, *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*. Faks. Donostia: Txertoa, 1990.
- Daranatz, Jean Baptiste, 1928-1931, “Correspondance du Capitaine Duvoisin”, *RIEV*: 19, 58-70; 280-286; 425-433; 449-492; 220, 152-181; 221, 270-297; 334-368; 222, 244-273; 310-377.
- Lacombe, Georges, 1924, “La langue basque”. A. Meillet & M. Cohen, *Les langues du monde*, Paris: 319-326.
- Lakarra, Joseba A., 1986, “Bizkaiera zaharra euskalkien artean”, *ASJU* 20-3: 639-682.
- Mitxelena, Koldo, 1958, “Introducción”. M. Agud and K. Mitxelena, *N. Landuchio. Dictionarium Linguae cantabricae (1562)*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia: 7-48.
- , 1960, “Guipuzcoano y vasco”, *BAP* 16: 236-238.
- , 1964, *Sobre el pasado de la lengua vasca*. Donostia: Auñamendi.
- , 1982, “Sobre la lengua vasca en Álava durante la Edad Media”, *Vitoria en la Edad Media*, Gasteiz: Gasteizko Udala. *OCC* V: 403-418.
- Mujika, Serapio, 1914-1917, “El obispado de Bayona con relación a los pueblos de Guipúzcoa adscritos a dicha diócesis”, *RIEV* 8: 185-229.
- Oihenart, Arnaud, 1656², *Notitia utriusque Vasconiae, tum Ibericae, tum Aquitanicae, [...] Altera editio emendata & aucta*, París: S. Cramoisy. Faks. eta J. Gorosterraturen gaztelaniazko itzulp. (1926-1928). Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 1992.
- Ondarra, Frantzisko, 1984, “Zegamako Doctrina Christiana (1741)”, *ASJU* 18-2: 3-62.
- Uhlenbeck, C. C., 1947 [1942], “Les couches anciennes du vocabulaire basque”, *EJ* 1: 543-581.
- Villasante, Luis, 1963, *Voces bascongadas diferenciales de Bizcaya, Guipúzcoa y Navarra. Por Fr. Pedro Antonio de Añibarro*. Bilbo: Caja de Ahorros Vizcaína.

- , 1964, “Texto de dos impresos sumamente raros de Juan Antonio de Moguel”, *BAP* 20: 61-73.
- Yrizar, Pedro de, 1981, “Los dialectos y variedades del vascuence”, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca. Tomo I. Trabajos preliminares. Recopilación*, Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, 95-125.
- Zuazo, Koldo, 1989, “Arabako euskara”, *ASJU* 23-1: 3-48.
- , 1998a, “Euskalkiak, gaur”, *FLV* 30: 191-233.
- , 1998b, “Arabako euskara”. H. Knörr and K. Zuazo, *Arabako Euskararen Lekukoak. Ikerketak eta Testuak*: 125-189.
- , 1999, “Arabako euskararen kokagunea”, *FLV* 80: 165-184.
- , 2003, *Euskalkiak, Herriaren lekukoak*. Donostia: Elkar.
- , 2006, *Deba ibarreko euskara*. Donostia: Badihardugu Euskara Elkarte.
- , 2007, “Euskalkien jatorriaz eta bilakaeraz”, *Berria* 2007ko abenduaren 9a.
- , 2008, *Euskalkiak euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.
- , 2010, *Sakanako euskara. Burundako hizkera*. Bilbo-Iruña: Euskaltzaindia-Nafarroako gobernua.
- , 2012, *Arabako euskara*. Donostia: Elkar.
- , 2013, *El euskera de Álava*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.
- , 2014, *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.